

# Goi eta behe mailako eskatologiak elkarkidetu zitzaizkidanean

Iñaki Bernaola

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa  
1991



Zumaiaiko Udala

*emskar  
txanpan*



# Goi eta behe mailako eskatologiak elkarkidetu zitzaizkidanean

Iñaki Bernaola

Julene Azpeitia 4. ipuin lehiaketa

1991

2. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Iñaki Bernaola (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Badira pare bat hilabete edonon egonda ere ipurtzuloa igurzteko gurari ezin eutsiz habilela, hain baita handia aipatu partean sentitzen dudan hazkura, eta puntu horretara helduta ez dakik zein den jada arazo larriena: hazkura bera ala ipurdiaren eskakizunari amore emateko gogoa eta premia itzela, zeren aldioro harrapatzen haute sekulan ere desiratuko ez hukeen egoera ezin egokian, esku bat aurrean eta bestea atzean, nolabait esatearren. Eta biziki hasi haiz kezkatzen, arazoari konponbide itxurosorik topatu ezinean. Kaka egiteko momentuan, ordea, bestelakoa duk kezka, zeren uneoroko hazkura min, benetako min bihurtzen baita orduan. Ipurtzulotik apur bat gorago hain zuzen, bereziki zabaldu behar denean urratu, kraskatu nahi bailuen. Hazkura eta mina nabaritzen hasi aurretik ere nolabaiteko desbiderapena sumatzen hasia hintzen, gorotz-zeppelinak zuzen eta artez erori beharrean, beste zulo berriren bila ahalegintzen ari balira bezala. Eta handixe etorri zitzaian lehenengo susmoa. "Hestearen desbiderapen objektiboa —erreal— izango ote da, ala inpresio subjektibo hutsa?" Eta galdera horri taxuzko erantzunik kausitu gaberik ere (zaila baino zailagoa baita, norberaren uzkiaren forma edo neurriei buruzko informazio zehatzik izatea) egunean behin, bi egunean behin edo egunero birritan segitu izan duk kaka egiten, bestelakorik ezinezko izanik, eta behin, birritan edo gehiagotan ere mina, eta minen arean tartekatua hazkura, hazkura izugarria sentitu eta nozitu duk, bizitza osoan izandako temati eta iraunkorrena nozitu ere.

Odoluzkien susmotan ohearen babespean ipurtzuloa haztatzen, miatzen hasi, eta eskuaren kontaktuak sorrarazitako erdi oinaze erdi plazerari zeharo emanik, minutuak igaro dituk atzamarrak gora, behera, barrura eta kanpora, ustezko gaizotasunaz informazio zehatzik ez baina egun osoko larridura ibitzea gutxienez nolabait lortuaz, inguruko azalaren ozkaminaz gain, ez baituk topatu beste ezelako fenomeno bitxirik. "Medikuarengana joango banintz hobe" hasi haiz pentsatzen duela egun batzuetatik, baina soluzio hau ere ez duk erreza, ezta gutxiago ere berehalakoa, asegurantza sozialeko txartela kadukatuta, eta lehenengoaren datuak —lantokia, helbidea, etab— baliogabeturik jada. "Ipurtzuloa dela eta azkenean paper guztiak gaurkotu behar" pentsatu duk halabeharrez, eta barregarri iruditu zaik oso burutazioa, ipurtzuloari dagokion paper bakarra, berez, komunekoa izan baita betidanik eta ez besterik. Hala, estrapolazio erreza eginez, bizitzan ustez garrantzi handikotzat jotako paper guztiak, nortasun agiriarekin hasita eta botoa emateko paperarekin amaitzeko,

kakazturik imajinatu dituk, kaka, azken finean, norberaren nortasun eta identitatea bermatzeko beste edozein baliabide bezain ona delakoan. Eta bizitzaren beste une desberdinetan, denboraren iragatean urrun jada, izandako zenbait pentsamendu etorri zaik burura, hala-hola behin batean, demokrazia erabat nazkatuta, ipurtzulotik pasatutako papera zikindua kartazalean sartu eta botoa ematera joatea erabaki huenean, nahiz eta azken momentuan erabakitakoari eutsi ez, edota astrologiaz biziki kezkatuta, geroa igartzeko komuneko paperean utzitako aztarnaz baliatu nahi izan huenean, nigromantzia, kiromantzia, oniromantzia eta beste mantzia guztiei papiromantzia ere gehituz. Ahaztu gabe, noski, arlo horretan haurtzaroko oroitzapenik behinena: auzoko kooperatiban hire amak erosi ohi zuen "Papel el Elefante", distiratsua bezain latza, iraunkorra bezain egokia poesia, erosketetarako zerrenda edo goitik behera antolatu beharreko beste edozein gairi buruz idazteko.

Baina egunak joan egunak etorri eta hazkurak bere hartan dirau. Gauzak horrela, medikuarengana joateko posibilitatea hasi haiz hartzen seriotzat, eta osasun-agiri guztiak taxuz antolatzen eta berritzen bidenabar. Ez haiz ohartu, haatik, bisitaren bigarren arazoaz eguna eta ordua telefonoz zehaztu duan arte: zer esan medikuari, zer erakutsi, tea zer egingo dian batez ere. Baina ordurako berantegi, eta medikuari eta alboko erizainari heure pena eta atsekabeen berri ematea beste erremediorik ez zaik geratu, bai eta beraiek agindutako praka-jaiste, makurtze, eta abarreko beste adierazpen fisiko guztiez hornitu ere.

"Exploración provisional rectal digital" delakoa izan duk, halere, mingarriena, batez ere medikuaren atzamarrak, gomazko zerbait babestua eta ahalik den sakonen iltzatua, gorantza okertu eta zeozer arraroarekin topo egin duenean. Orduantxe bai, barnea lehertzen sentitu duala, nahiz eta hire oihuek eta aihenek inoren errukia piztea lortu ez. Atzamarra atera, gomazkoa saskira bota, eskuak garbitu —medikuek sarri askotan errepikatzen duten operazioa, denok dakigunez— eta idazteari ekin dio, ezer gertatu ez balitz bezala, hi, aldez edo moldez, heure barnea eta ropajearen desitxuraketa konpontzen saiatzeaz batera. "Hauek gauero hartu beharreko supositorioak dira, afaldu eta gero eta behin egin beharrekoak buruturik. Hau egunean birritan aplikatzeko pomada, mina eta hazkura sufritzeari uzteko. Eta azken hau espezialistarengana joateko baimen-agiria, ehunen biopsia egin diezazun". Eta lasai asko geratu da, erizainak eskuratu berriko hire txartelaren datuak fitxeroan sartzen dituen bitartean.

"Medikuen gupil zoroan nagok sartuta —esan diok heure buruari— eta zaila izango diat bertatik ateratzea, azkar ez banabil behintzat". Baina oraingoz sartu besterik ez duk egin, eta laster, lasterregi agian iruditzen zaik bukatzeaz pentsatzeko, areago espezialistaren bisita-eguna bi egun barru duala ohartu haizenean, izugarri garaiz medikuntza publikoan. Eta hau notizia ona ala txarren den ondo jakin gabean, etxera abiatu haiz, alboko botikari derrigorrezko bisita egin ondoren, jakina, non kendurak eta guzti mila pezeta inguru utzi duan, ipurdiko mina kostatzen zaijan lehenengo mila pezeta, alegia.

"Etor zaitetz astebete barru biopsiaren erresultatua jasotzera" esan diate, bigarren aldiz praka jaitsi, ipurtzuloa erakutsi eta ondoko desastre fisiko eta morala konpontzen ahalegindu ondoren. Eta zintzo-zintzo itzuli haiz agindutako denbora-epetan, eta mostradoreko erizainak barrura pasarazi dik, eta hori, ziur hago, oso ezohizkoa da, erresultatua kartazal baten barruan errez eman

daitekeela jakinik. Hala, nolabaiteko ezinegonak bultzatua, behar baino arinago sartu haiz medikuaren despatxuan, herabeti eta koldar guztiek zigorraren aurrean egin ohi duten era berean, askoz kemen handiagoa behar baita zigorraren aurrean errebelatzeko, mantso-mantso eta borondatez onartzeko baino. "Etor zaitez, arren, eskatu dik galenoak, eta inguru-minguruka ibili gabe haria joan da, asegurantza sozialeko mediku hiperlanpetuei propio dagokien eran: Biopsiaren erresultatuak ez dira izan espero bezain onak, eta ezinbesteko izango duzu tratamendu intentsiboa, zure ohizko funtzioak ahalik eta luzeen kontserbatu nahi izanez gero. Hau da, izpi-terapia arrakastatsua den bitartean, ebakuntza alde batera utz genezake. Laster edo berandu, ordea, ebakuaziorako zulo berria ireki beharko da, hestearen traiektoria desbideratuz". Eta rolo hori botatzeaz batera kanpoaldean hire izena idatzita dramatikazala eskuratu duk, harik eta bi segundotara alde egin dezakeelako keinua adierazi begitartez eta konketara abiatzeko, eskuak garbitzeko asmotan, segur aski. Bahoia zuzen aterantz eta berriro deitu bat-batean: "A, ez ahaztu txostena medikuntza orokorrekoari entregatzea, medikuntza pribatura jo nahi ez baduzu behintzat".

Oraindik zergatik jakin gabe ere, eta ausardia pitin bat demostratzeko gai izanik, zuzen-zuzen galdetu diok: "Eta baja laborala emango al didate?" "Hori ere berari eskatu" erantzun dik, nahiko zakarki. Eta beti gauza berberaz ahazten direlako konbentzimenduaz atera haiz kontsultatik, eta kalean zehar bost minutu ibili arte ez diok hartu azken uneetan gertatutakoari benetako neurririk: "Hau minbizia duk" eta Jesukristoren korapiloa egin zaik eztarrian, eta etxerako bide osoan zehar ez haiz kapaz izan ezer ahoskatzeko, ez eta malko txikiena isurtzeko ere.

"Doazela popatik hartzera!!!" oihukatu duk kanpoko atea itxi bezain laster, eta orduan bai, negarrari eman diok, begiak gorrituta, burua zorabiatuta eta sudurra eta eztarria ia ipurtzuloa bezain minduta utzi arte. Baina apur bat lasaitu haizenean, lehenengo uneko negargurari baino beste sentrazio sakonagoak, mingarriagoak jarraitu dio: bizitzaren porrota, nonbait hutsune handia eta konponezina, beste gizaki "normalak" baino makalago, gutxiago haizelakoa... eta bat-batean gainera, duela hiruzpalau urte atzealdetik izandako zenbait esperientzi bitxiz oroitu haiz, zeintzuetan sekulan ez pentsatzeko agindua aspaldian emana hion heure buruari. Eta larridurazko une horretan, ezbairik gabe jo dituk oraingo gaitz guztien zio eta motibo, bekatari handiek infernuaren atarian sentitzen omen duten bezalako pisuak lepoa eta urdaila gero eta estuago estutuz. Baina pixkanaka-pixkanaka guzti horren zentzugabekeriaz ohartu, eta heure baitako ziurtasuna hasi haiz berreskuratzen, zorionez: "Tontolapikorik handiena hago egina, minbizia ez baita kutsagarria. Hiesarekin nahastu duk, motel, bata eta bestea zeharo desberdinak direla erreparatu gabe".

Ezin ukatu azken aurkikuntza horrek eragin lasaigarria izan duela hire ariman, gauzak beste perspektiba desberdinetik aztertzen lagundu dialako batik bat. Minbizia, azken finean, ez duk bizitzan zehar oker edo kaltean egindako zerbaiten ondorioa, ez ondorio zuzena behintzat, baizik eta gorputzaren amaierako abisua, heriotzaren iragarpena nolabait esatearren. Eta, ondo begiratuz gero, bizitzaren amaiera noiz den alde zuretik ezagutzea ez duk ezer txarrik. Eta gauzak gehiegi exajeratuz, beste muturrera pasa eta eskerrak eman dizkiok heure gorputzari, bere existentziaren amaieraren berri alde zuretik iragarri dik eta. Eta bizitzeko faltako zaizkian hiru, lau, bost aste

edo hilabeteak bizitza osoko zoriotsuenak izango direla erabaki duk, ez mota guztietako plazer zoroetan murgiltzeko asmorik dualako, ezta pentsatu ere, baizik eta kontzienteenak, sakon eta mamitsuenak izango direlako dudarik gabe.

Erabakia lehendik ere hartuta bahuen ere, mediku titularra ez dakik zelako kongresu arranditsuan egoteak bidea erraztu dik, kontsultan topatu duan ordezeko esperientzia bako eta oilo izutuaren aurpegikoa ez baita ausartu komentario txikiena ere egiten kartazala ireki eta beraren edukia irakurri ondoren. Hori bai, baja laboralarena gogorarazi behar izan diok, espero bezala, eta inolako eragozpenik gabe sinatu badu ere, ezin izan duk hotzikara bat geldiarazi epea "mugagabea" irakurri duanean. Eta gehiagorik luzatu gabe lantegira abiatu haiz ofizinan entregatzeko, non ezagutu ere ez haute apenas ezagutzen, eta kaleratu orduko gogor ekin diok ipurtzuloa igurzteari, arazo laboralak direla eta ipurdiak emango dian azken-azkenengo buruhaustea izango delako konbentzimendu osoz.

Bahago libre jadanik bizitza osoan, berau laburra izanik ere, nahi duana egiteko, edo hobe esanik deus ez egiteko, zeren lehen esan bezala ez batuk inolako asmorik azkenean burusoil eta koloregabeturik geratzeko baino balio ez duten kimioterapia bezalako tratamendu zitalpean heure burua jartzeko, are gutxiago, jakina, sabelaren alde batetik edo bestetik etengabe kakazturik utziko hinduen inolako sasi-uzkirik ireki diezaaten. Beste mundura joango haiz, laster baino lasterrago joan ere, baina ilea, kolorea, ipurtzuloa eta duintasunaren jabe, hori bai.

Azken egunetako gorabeherak medio, nahiko ahazturik hituen tabernako ohizko bisitak, eta harridurazko aurpegiz errezibitu haute heure lagunek itxuraz argalago eta aurpegieraz zurbilago atea zeharkatu duanean. Hala, koadrilako ahobero eta berbatiak —koadrila guztietan ohi duk holakoren bat— hiregana hurbildu eta sorbaldan sekulako eske-zartada eman ondoren, mostradorerantz eraman hau, ia narrastaka:

—Atera ezak kopa doblea pipergile honentzat, barnetik ustel dagoelako itxura zekarrek eta!!!

Tragoxka edan behar izan duk bizitza osoko koparik desatseginena, eta laster ulertu duk gauzak ez direla uste bezain errazak, batez ere kontutan izanik heure mogidak, nahitaez, zerikusi gutxi duela jadanik heure lagunenarekin, ardo eta pattarrik edateko gogo-gabekeriaz gain parrandarako ere indarrak erdi abandonaturik dauzkak eta. Burura etorri zaijan lehenengo aitzakiaz ohi baino garaizago etxeratu haiz, tabernara berriro ez jaisteko konpromiso sakona hartu eta gero.

Azken zorigaiztoko kopa hargatik edo, Jesukristorenak izan dituk uneoroko hazkura eta kaka egiteko mina, hainbeste non serioski planteatu diok heure buruari ea benetan merezi ote duen kaka egiteak, eta bigarren edo hirugarren aldiz ordu laurdeneko sufrimendu pairaezinaren ostean ezetz erabaki: aurrerantzean ez duk sekulan kakarik egingo, eta horretarako ezagutzen duan erremedio bakarra jarri duk praktikan: jateari utzi, eta ur-laranja edo antzeko bitxikeriez soilik elikatu. Eta bi egun pasa ondoren lortu duk, erabat lortu ere, bai eta uneoroko hazkura nabarmenki gutxitzea. Eta denboraldi labur batez bizitzaren normaltasunean sinistu duk, irudimenezkoa baino ez dela ongi baino hobeto jakin arren, zeren herri honetan, bestelakorik esaten ez didaten

bitartean, jatekoa normaltasunaren ikurrik behinena duk, hala-hola janik eza, ordea, joera ezohizkoa, kezkarria, larrialdiaren adierazle delarik.

Zer egin zer ez egin habil etengabe, eta emeki-emeki errealtateaz jabetzeko beharrak bultzatua, geratzen zaian denbora apurra planifikatzea pentsatu duk, orain arteko heure bizitzarik gero eta urrunago, gero eta desberdinago. Baina heure bizitza, edo beratik geratzen zaian apurra nahi duan eran antolatu ahal izatearen poztasunarekin batera, planifikatzeko gogorik eza hasi haiz sumatzen gero eta nabarmenago. Izan ere bizitza luzearen eraketa pentsaezina den era berean, interes gabe eta alferrikakoa berez laburra, mugatua denarena. Horrek ez dik galarazten, halere, bat-bateko ideia xebreren bat edo beste burura etortzea: "Eta bidenabar lauzpabost txakur edo antzekorik nirekin batera eramango banu?" Baina horretarako ere, umorea gero eta garratzago duk ezinbestean, kartzelan luzaro iraungo ez bahu ere, bai behintzat trago txar bat baino gehiago jasan: "Y dice usted que le quedan pocas semanas de vida porque tiene un tumor en el culo? Pus aprovéchela, hombre, y gócela al máximo. Morales!

—Mande!

—Vaya al cuarto de la limpieza y traiga la escoba de mango gordo!

Bizitza antolatzearen desiotik heriotzaz hausnartzera pasatu haiz ia oharkabean, nahiz eta heriotza, berez, aukera gutxi eman taxuzko ezer hausnartzeko. Izan ere elizkizunak —izatekotan lurperatzea, senideen malko, aihen eta ohizko zinkulinez gain, ezer gutxi geratzen zaik hilobiko harlauza hire ginean itxi, edo hire gorpua, tumorea barne, izandakoaren errautsak Punta Galea, Haize-Orratza edo kostaldeko beste edozein lekutan barreiatuak izan eta gero. Eskelak dituk. Hori bai. Eskelak, hildakoaren benetako neurria ematen duten azken gauza. Eta pena eman dik, gogor eman ere, Eginen zenbat aterako dian ezin ikusteak. Eta bultzatua sentitu haiz une batez, kide, militante, partaide, babesle, boto-emaille haizen edo izandako erakunde guztiei deitu, eta abisatzeko: "Aizue, laster hilko nauk eta prestatu eskela." Baina, jakina, inizatiba hau ere baztertu duk, jadanik egitekorik, asmatzekorik edo sinpleki pentsatzekorik ezer gutxi gelditzen ez zaik eta. Hala, amerikar mendebaldeko nobelak irakurtzeari eman diok sekulan espero ez izandako kemenez, areago jakinda inoiz ez dituala gustuko izan. Beltzak bai, egia esan, baina jende gehiegi hiltzen da azken hauetan heure gusturako, eta batez ere, hau kezkarria, heure bizimodutik ustez hurbilago dauden erakoak. Bakeroenetan, ordea, hildakoak ehunka erori arren, ez dituk heure ezpalekoak, ez eta heure planeta urbanokoak ere. Eta loaldi eta irakurraldiak, irakurketak eta ametsak hasi dituk tartekatzen, gero eta maizago, gero eta nahasiago, bata besterik bereizteko gai izan ez haizen arte. Era horretan egun batean, ez dakik ziur amets ala irakurri egin duan, Wells Fargoko geltokian ikusi edo sumatu duk heure burua, eta zenbait egun asper-asper eginda itxaron ondoren urrun-urrundik harrotutako hautsak sei zalditako dilijentziaren etorrera iragarri dik, heure poztasunerako. Barrura igo, eta biziki kezkatu haiz bidaide suertatu zaian lagun-sorta ikustean: adatsik gabeko krezepele-saltzailea, indiar lurraldeetatik etorri berria, pertsegizailleen tiroen aurrean bere gorputza tartekatuaz Billy the Kid kuttunaren ihesa ziurtatzea lortu zuen salooneko emagaldua, denboraren aurkako lasterketan apustua galdu zuen pistolaria... eta hurrengo geldiunean John Waynerekin batera peskantera igotzea erabaki duk, John Waynek zenbait urte hilik daramala erreparatu gabe, baina norabideaz galdetu diodanean —Mexikora, alegia— laster ulertu duk onekoetan Kaliforniara

abiatzen diren era berean, Mexiko baita, hain zuzen, Far Westeko frakasatu guztien helmuga, zeren hara heltzea lortzen dutenak gutxi baldin badira, gutxiago ibai-muga zeharkatu ondoren beren paraderoaren berri ematen dutenak.

Ibai Handira heldu zarete, haatik, uste baino arinago, eta heure pertenezkia urriak estalkiarekin batera bilduta txaluparen enbarkalekura abiatu haiz bidaideekin batera, eta behin dilijentzia ortzi-mugan desagerturik txalupazainarengana hoa, tratua egiteko asmotan: "Demórese un poquito más en el Norte, que todavía luse un buen aspecto, al menos hasta la próxima diligencia" esan dik intentzio onenez, baina hiri bost axola dik bidaia zein txandatan egiteak, eta txalupan sartu haiz, oraindik lainoak ikusezin egiten duen beste ertzera iragan nahian. Denbora ematearren edo, solasean hasi haiz eta izenaz galdetu:

—Felisiano Caronte Jiménez, para servirle.

Mundua bezain zaharra dirudien txalupan, tripulantearen ustezko gaztetasunaz kezkatu, eta halaxe jakinarazi diok:

—Mi padre y el padre de mi padre también tuvieron este mismo trabajo, señor.

Hik badakik, halere, Feliciano horren aita eta itona baino askoz lehenagotik ere izen bereko norbait aritu zela lan berean, bai eta funtsezko galdera egiteko ausartu ez haizela ere, ibaiaren beste aldeaz informaziorik eskatzekotan bertan norberak topatu nahi duena besterik ez dagoela erantzungo bailiake. Eta heuk, egia esan, oraindik ez dakik, eta agian jadanik ez duk sekulan jakingo, Mexikon zerbait topatu nahi duan ala ez, batez ere kontutan izanik Mexiko Far Westeko pelikula eta nobela askotan aipatzen bada ere, sekulan ez duk aurkitu bat ere non Mexikok, ibaiaren beste aldeaz herri independente gisa, existentzia erreala duenik.